



geurien
euskera
hitzarmena

11. zenbakia
2014ko otsaila

Hamar hiztunetik sei euskaldunak

Eustaten ikerketaren arabera,
%61,3 euskaldunak gara Elorrion / 2

2013-2017 epealdirako Euskara Plana onartu du udalak aho batez

Herrira zein udalera begira euskara arloan hainbat konpromiso hartu ditu udalak / 4



Euskararen erabilerak gora egin du Elorrion

Hamar hiztunetik sei euskaldunak

Eustaten ikerketaren arabera, %61,3 euskaldunak gara Elorrión

Euskal Estatistika Erakundeak bost urterik behin kaleratzen ditu euskararen erabileraren inguruko estatistikak. Elorri-ri dagokionez, azpiko koadroan dituzu datuak ikusgai.

EUSTATEk 2011. urtean egindako Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistikaren arabera, hamar hiztunetik sei, %61,3 zehatz esanda, euskaldunak ziren Elorrión; %20k, euskaldun osoak izan barik, bazuten euskararen nolabaiteko ezagutza, ulermen mailan, behintzat; eta gainerako %19a erdaldunak ziren, euskara ez zekitenak. Horiek dira Elorrioko herritarren hizkuntza-gaitasunari buruz argitaratu diren daturik berrienak.

Ondorioak

Datuek garbi erakusten dute, azken hogeita hamar urteotan euskaldunen kopuruak nabarmen egin duela gora, 13,4 puntu hain justu; elebidun hartzaileen edo ia euskaldunen kopuruaren igoera oraindik handiagoa dela, 14,90 puntu irabazi baititu; eta erdaldunen edo euskara ez dakitenen kopurua 28,4 puntutan jaitsi dela.

Datuen arabera ondorioztatu daiteke elorriarren %81a gai dela euskaraz ulertzeko eta joera hori mantendu egingo dela datozen urteotan; beraz, Geurien hitzarmena sinatu dugun elkarte, merkatar, ostalari eta abar prest egon behar dugu zerbitzua euskaraz emateko eta euskarazko eskaintza gehitzeko.

Aholkuak

Euskaldunen kopuruak gora egiteko hona hemen aholku batzuk:

Euskalduna bazara: euskaldunekin beti euskaraz eta, bidean daudenei lagundu lehen hitza beti euskaraz eginez.

Euskaldun izateko bidean bazaude: Elorriok hainbat aukera eskaintzen dizkizu euskaraz aritzeko, saia zaitez dakizuna erabiltzen. Beste aukera bat Berbalagun proiektuan izena ematea duzu.

Euskalduna ez bazara: animatu euskaltegian izena ematera, gogoratu Udalak diru-laguntzak eskaintzen dituela euskara ikasteagatik eta gogoratu ere Elorrioko %80a gai dela euskara ulertzeko.

ELORRIO

Euskararen kale-erabilera

Emaitzak eta ondorioak



AURKEZPENA

Azaroaren 26an, martitzena
Iturri Kultur Etxean
Arratsaldeko 06:30ean



| URTEA | BIZTANLEAK | EUSKALDUNAK | IA-EUSKALDUNAK | ERDALDUNAK |
|-------|------------|---------------|----------------|---------------|
| 1981 | 7.357 | 3.501 (47,6) | 375 (5,10) | 3.487 (47,4) |
| 1986 | 7.336 | 3.602 (49,1) | 601 (8,20) | 3.132 (42,7) |
| 1991 | 7.127 | 3.734 (52,4) | 599 (8,40) | 2.793 (39,2) |
| 1996 | 7.221 | 4.085 (56,5) | 882 (12,20) | 2.254 (31,2) |
| 2001 | 6.983 | 4.112 (58,89) | 1.151 (16,48) | 1.720 (24,63) |
| 2006 | 6.881 | 4.034 (58,63) | 1.200 (17,44) | 1.647 (23,94) |
| 2011 | 7.109 | 4.357 (61,00) | 1.413 (20,00) | 1.339 (19,00) |

Según los últimos datos publicados por Eustat, en Elorrio el 61% domina el euskera; el 20% es capaz de entenderlo, y el 19% lo desconoce (consultar la tabla). Por tanto, el 81% está capacitado para entenderlo y usarlo en cierta manera. Si se mantiene la tendencia los próximos años el número de euskaldunes irá aumentando progresivamente. Por tanto y para acelerar esa tendencia os animamos a:

Si eres euskaldun: háblalo con los que son euskaldunes y con los que están en camino, te lo agradecerán.

Si eres capaz de entender el euskera, suéltate e intenta hablarlo, Elorrio te ofrece cantidad de oportunidades, sino te puedes apuntar en el proyecto Berbalagun.

Si desconoces el euskera: apúntate en el euskaltegi, el Ayuntamiento subvenciona los cursillos de euskera.

Hamar elkarrizketatik hiru euskaraz egin dituzte Elorrión

Soziolinguistika Klusterrak hizkuntza-erabileraren inguruko azterketa egin du Elorrioko kaleetan

Elorrión hamar elkarrizketatik hiru euskaraz egin dira, hau da, zazpi elkarrizketa euskara ez den beste hizkuntza batean egin dira 2013ko maiatzean egindako neurketaren arabera. Hona hemen 2013. urteko udaberriean, Elorrioko Udalararen eskariz, Soziolinguistika Klusterrak egindako Elorrioko hizkuntza-erabileraren kale-neurketaren ondorio nagusiak:

2013ko datuek bilakaera positiboa adierazten dute 2008. urtearekiko

- Elorrioko kaleetan entzundako hamar elkarrizketatik hiru baino zertxobait gehiago, %33,4 zehatzago esateko, euskaraz izan da. Gainerakoak gaztelaniaz izan dira nagusi

siki (%65,9), eta badira beste hizkuntza batzuetan gertatzen direnak ere (%0,7).

- 2013ko neurketako datuek bilakaera positiboa adierazten dute 2008. urtearekiko (bost puntuko igoera bost urtean: %28,4tik %33,4ra).

- Alde esanguratsuak antzematen dira hizkuntza-portaera adinaren arabera aztertuz gero. Haurrak dira alde handiarekin euskaraz gehien hitz egiten dutenak. 2013ko neurketan, Elorrión behatutako haurren %65,9 ari ziren euskaraz. Ondoren, erabileraz dezentz jaitziz, gazteak ditugu (%28,3 euskaraz). Jarraian helduak datoz (%26,2ko erabileraz) eta, azkenik, adinekoak (%19,9).

- Adinaren araberako erabileraz aztertzerakoan hiru ondorio azpimarratuko ditugu: Batetik,



aipagarria da bi neurketetan haurren eta gainontzeko adin-taldeen arteko aldea handia dela oso. Bigarrenik, bai 2008an eta bai 2013an, adinekoak dira euskara gutxien erabiltzen dutenak. Eta azkenik, gazte eta helduen arteko erabileran apenas dago alderik bi neurketetan.

- Emakumezkoen eta gizonzkoen arteko erabileran alde handirik ez dagoen arren, bai 2008an eta bai 2013an hitzuna emakumezkoa denean euskara zertxobait gehiago entzun dugu gizonzkoa denean baino.

- Haurrek maila berean erabiltzen dute euskara nagusiekin edo haurrekin daudenean; nagusiek, berriz, askoz gehiago erabiltzen dute euskara haurrekin daudenean,

nagusi artean soilik daudenean baino. Zeharka bada ere, Elorrioko hainbat euskaldunen hizkuntza-gaitasun nola-halakoaren berri eta hurrengo belaunaldiei euskara transmititzeko borondatearen berri ematen digu datu horrek.

Alde esanguratsuak antzematen dira hizkuntza-portaeran adinaren arabera

Goiko datuak kalean entzundakotik ateratakoak dira, baina, zein da euskararen erabileraz etxean, dendan, tabernan, elkarteetan, gazteen txokoetan eta abarretan? Neurri handi baten geure esku dago euskararen erabileraz gehitzeko. Zer neurri hartuko dugu horretarako?

El ayuntamiento de Elorrio, al igual que lo hiciera hace cinco años, ha encargado a Soziolinguistika Klusterra el estudio de la medición del uso del euskera en las calles de Elorrio. Los resultados han sido los siguientes: euskera 33,4%, castellano 65,9% y otras lenguas 0,7%. Si lo comparamos con los resultados de hace cinco años observamos que el uso del euskera ha aumentado justamente en cinco puntos.

En cuanto a la edad, vemos que los que más lo utilizan son niños y niñas con el 65,9%, seguidos a gran distancia por jóvenes con el 28,3%, adultos 26,2% y mayores con el 19,9%. Son mediciones a nivel de calle, pero, ¿cuál es el uso en los hogares, comercios, hostelería, asociaciones, etc? Depende de nuestra disposición y de los compromisos que adoptemos, o sea está en nuestras manos, en este caso en nuestra lengua.

Elorrioko Udalak 2013-2017 epealdirako Euskara Plana onartu du aho batez

Herrira zein udalera begira euskara arloan hainbat konpromiso hartu ditu udalak



Aldizkariaren azalean jartzen duen moduan Elorrioko euskaldunen kopuruak zein erabilerak gora egin du azken urteotan. Horrek garbi adierazten du orain arte diseinatutako euskara-planak bide onetik doazela, nahiz eta oraindik lan handia dagoen egiteko. Aurreko urteetako balorazioa edo ebaluazioa egin ondoren Elorrioko Udalak 2013ko abenduaren 18an egindako Plenoan aho batez onartu du datozen bost urteetarako egindako Euskara Plana.

Elorrioko Udalak, herri mailako erakunde garrantzitsuena den aldetik eta euskara sustatze aldera, ondoko

konpromisoak hartu ditu: alde batetik, herrira begira, euskararen ezagutza areagotzen jarraitzea eta neurriak hartzea euskararen erabilerak aurrera egin dezan. Eta beste aldetik, udala bera prestatzea euskara barneko lan-hizkuntza izateko eta zerbitzua euskaraz emateko.

Zeintzuk dira Udaleko Euskara Planaren ardatz nagusiak?

Labur bilduta ondokoak lirateke ardatz nagusiak, osorik ikusi gura izanez gero udaleko web orrian daude jarrita.

· **Hizkuntza-gaitasuna:** udaleko langile guztiak gai izango dira euskaraz erantzuteko.

Ahozko komunikazioa: barneko ahazko komunikazioak euskaraz egingo dira eta, herritarrekin, herritarrak aukeraturako hizkuntzan.

· **Idatzizko komunikazioa:** printzipioz euskaraz izango dira, baina, beti ere hartzailea nor den kontuan hartuta.

Itzulpenak: langileek euskaraz sortuko dute eta gaztelerara itzuliko dira.

· **Aplikazio informatiboak:** aukera dagoenean euskarazko bertsioak jarriko dira.

· **Argitalpenak, iragarkiak, publizitatea:** euskaraz egingo dira edo kasuaren arabera ele bietara.

· **Hizkuntza paisaia:** erroretuak, kale-izendegia, udal

barneko elementuak eta abar euskaraz jarriko dira, ele bietara jarri behar izanez gero piktogramak erabiliko dira.

· **Diru-laguntzak:** deialdien oinarrietan euskararen erabilerara eskatutako da.

· **Kontratazioak eta hitzarmenak:** baldintza-pleguetan euskara eskatuko da kontratazio eta hitzarmen motaren arabera.

Oharra: Udalerako badira ere, horietako arlo batzuk erabilgarriak dira zure elkarte, denda, taberna edo eskaintzen duzun zerbitzurako. Begiratu, aztertu eta saia zaitetz edo saia zaitetz abian jartzen.

El Ayuntamiento de Elorrio en Pleno celebrado el 18 de diciembre de 2013, entre otros puntos, aprobó tanto los criterios lingüísticos a aplicar en el ayuntamiento como el Plan General de Euskera para los próximos cinco años. Es de resaltar que de trece votos, doce fueron favorables y que tan sólo hubo una abstención y ningún voto en contra; de lo que se deduce el interés mostrado por la corporación en cuanto a la promoción del uso del euskera.

Teniendo en cuenta los objetivos de la corporación, como son que el euskera sea lengua de trabajo y de servicio, el ayuntamiento adoptará medidas para que el personal esté capacitado para aten-

der en euskera las comunicaciones internas y externas, ya sean orales o escritas. En cuanto al paisaje lingüístico, los rótulos, carteles informativos, señales, etc. fáciles de entender, en principio se realizarán en euskera o bien irán acompañados de un pictograma, y en algunos casos estarán en euskera y castellano dando preferencia al euskera.

Estos criterios y algunos otros los irá aplicando el ayuntamiento dentro de un plan de cinco años; también son aplicables en tu establecimiento o asociación. Si tienes alguna duda puedes consultar en el servicio de euskera del ayuntamiento.

Gurasoak eta umeak elkarrekin jolasean: Zabu-zibu egitasmoa

Zabu-Zibu ekimenak euskaraz jolasteko baliabideak eskaintzen dizkie familiei

Umeek aisialdia modu ezberdinean bizitzen dute: antolatua izan daiteke: haur txokoak, ludotekak...edo librea: etxean, kalean, lagunekin, familiarekin... Adina izaten da ezaugarrikerik erabakigarriena aisialdi mota aukeratzeko. 3-5 urte bitarteko haurrak, aisialdi antolatuko ekintzetan parte hartzen hasten dira, haur txokoetan edo ludoteketan gehienbat, eta kalean jolasean aritzeko heldu baten laguntza behar izaten dute. 6-9 urte bitarteko haurrak, aisialdi antolatuko ekintzetan parte hartzen hasten dira eta kalean lagunartean aritzen dira jolasean.

Gurasook sarritan ez dugu behar beste baliabide seme-alabekin kalean euskaraz jolasteko, haur eta gazteek ez dute bizitasuna aurkitzen euskaraz lagunartean komunikatzeko eta hau nahiko txikitatki hasten den prozesua da.

Hori dela eta, aurten Zabu-Zibu egitasmoa jarri dugu martxan ondoko helburuekin:

-Familiei euskaraz jolasteko baliabideak eskaintzea

-Familiak euskararen inguruan biltzeko gunea sortzea.

Eta bide batez ondokoa lortuko dugu:

•**Motibazioa:** jolasean gustura sentitzen bagara euskaraz jolas eginez, hizkuntza jardura dibertigarriarekin lotzea lortuko dugu. Jolasa, beraz, motibazioa areagotzeko oso tresna eraginkorra izango da.

•**Ezagutza:** jolasen bitartez hizkuntza ikasi eta ezagutzen da. Jolasetan abestiak, esapidak, formulak eta hiztegia lantzen dira.

•**Erabilera:** Haurrek jolasean denbora asko pasatzen dutela kontuan hartzen badugu, erraz ohartuko gara jolasaren garrantzia zenbatekoa den. Jolasean euskara erabiltzea



lagunarteko harremanak euskaraz eraikitzeke urrats garrantzitsuak da.

Elorrion lau saio egin dira 3-5 urte bitarteko umeekin eta euren gurasoekin: Txintxirri ikastolan, Maria Bitarteko ikastetxean eta Elorrio Herri Ikastetxean. Azken saioa ikastetxe guztiak nahastuta egin zen, asmoa Herriko Plazan egitea bazen ere, eguraldiak ez zuen lagundu eta Iturri Kultur Etxean egin zen. Guztietan erantzuna ezin hobea izan da eta balorazioa ere ona izan da, horren adierazle guraso batek

emandako iritzia da: *"Nire us-tez jendea oso gustura egon da, ez bakarrik euskararen aldetik, baita gurasoen eta seme-alaben arteko harremana hobetzen lagundu duelako jolasen bidez"*. Eta eskatu zuen aurten ere Zabu-Zibu errepikatzeke.

Guraso horren eskabidea zein egitasmoaren balorazioa kontuan hartuta, aurten ere errepikatzeke asmoa dugu, gainera landuko diren abestiak CD baten banatuko dira parte-hartzaileen artean.

Animo eta parte hartu!

A menudo los niños y niñas entre tres y cinco años necesitan de la ayuda de sus padres y madres para jugar y disfrutar juntos; pero, a veces resulta que no conocemos ningún juego. Para solucionar dicho problema este año hemos puesto en manos de los padres y madres el proyecto Zabu-Zibu consistente en unir a diversos padres y madres con sus respectivos hijos e hijas. El proyecto se ha llevado a cabo en M^a Bitarteko, Txintxirri ikastola y

Herri Ikastetxea. Los participantes se han mostrado satisfechos con la experiencia vivida ya que en su opinión les ha servido para conocer nuevos juegos y mejorar las relaciones con los niños y otros padres, todo ello en euskera. Como lo han valorado positivamente han solicitado repetir la experiencia, por lo que este año reservaremos algunos días y se repartirán CDs con nuevas canciones. Animo!

Eman Giltza ekimenari buruzko informazioa

Haur gaztetxoek gurasoa bazara edo, ez hain gaztetxoena, sarzaitze **emangiltza.com** webgunean eta dituzun hainbat zalan-

tza argituko dituzu. Helburua, euskara belaunaldiz belaunaldi transmititzeak duen garrantziaz jabetzea da.

Vivimos en una sociedad donde conviven dos lenguas oficiales como son el euskera y el castellano y algunos desconocemos el euskera, aun así podemos ayudar a nuestros hijos e hijas a que lo aprendan y puedan utilizar varias lenguas. A veces nos surgen muchas dudas respecto a la lengua, pues para poder ayudarte a solucionar dichas dudas hemos creado la página **emangiltza.com**. Entra y consúltala.



Euskarazko produktuen katalogoa interneten kontsultatzeko aukera

www.katalogoa.org webgunean

Katalogoak gurasoentzako eta 16 urte bitarteko ume eta gazteentzako produktuak biltzen ditu zortzi ataletan banatuta: musika, liburuak, aldizkariak, filmak, jostailu eta jokoak, DVD eta informatika produktuak, komikiak eta gurasoentzako produktuak.

Gurasoentzako eta 16 urte bitarteko ume eta gazteentzako produktuak ditu

Durangoko Azoka baino lehen Elorriko Udalak 1.200

katalogo banatu ditu gurasoen artean.

Euskarazko Produktuen Katalogoaren webgunea urte osoan kontsulta daiteke hel-

Musika, liburuak, aldizkariak, filmak, jostailuak, DVDak e.a. jasotzen ditu

bide honetan www.katalogoa.org. Irakurleek, iruzkinak eta komentarioak egin ditzakete bertan, irakurri, ikusi, entzun edota jostatzeko hautatu duten produktuaren inguruan.



La Mancomunidad de la Merindad de Durango con objeto de informar sobre temas relacionados con el euskera ha creado la página web conocida por ZAREA. La puedes consultar en la siguiente dirección www.durangaldeaeskarakaz.eu

Zarea webgunea sortu du Amankomunazgoak

Euskararen inguruko berriak aurkituko dituzu www.durangaldeaeskarakaz.eu webgunean

Durangaldeko Mankomunitateak Zarea deitutako web orria zabaldu du Durangaldeko bizi-lagunek euskararen inguruko berri zuzena izan dezaten.

Sar zaitetz helbide honetara durangaldeaeskarakaz.eu eta webguneak eskualdeko ondo-ko informazioa eskainiko dizu:

berriak, ekitaldiak, Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoko herrietako euskara zerbitzuetatik egiten diren proiektuak: agenda, soziolinguistika, diru-laguntzak, toponimia, argitalpenak, euskara bultzatzeko egitasmoak eta abar.

Udalaren egutegia 2014

Urtero lez, aurten ere Elorriko Udalak 2.000 egutegi kaleratu ditu herritarren artean banatzeko. Jaso duzu zeurea? "Elorrio, margolarien inspirazioa" izan da aurtengo gaia. Iturri Zoro elkarteak (koadroen aukeraketa) eta Elorriko argazki taldeak (koadroen argazkiak) parte hartu dute aurten.



El Ayuntamiento de Elorrio ha repartido 2.000 calendarios. El lema elegido para este año ha sido "Elorrio, margolarien inspirazioa" y en su edición han colaborado las asociaciones Iturri-Zoro Elkarte (elección de cuadros) y Elorriko Argazki Taldea (fotografía de los cuadros).

Elkarteen karteletan euskara da nagusi

Elkarteen karteletan euskararen erabilera neurtu du udalak

Elorrioko kultur, kirol eta beste era bateko elkarteek kaleratzen dituzten karteletan euskararen erabilera neurtu da, guztira hamabost elkarteena, guztiek ez baitute bidali kartelik. Aztertutako karteletatik bederatzia euskaraz egon dira, sei euskaraz eta gazteleraz eta bat bera ere ez gazteleraz. Datuen arabera ondorioztatzen da elkarte guztiek kontuan hartzen dutela euskara eta hori berri pozgarria da euskararen berreskuratze prozesuan. Zorionak ba elkarte guztioi.



Aumenta la presencia del euskera en los carteles publicados por las distintas asociaciones de Elorrio. Hemos examinado quince

carteles, de los cuales 9 estaban en euskera (60%) y 6 en euskera y castellano (40%).

Elorrioko ekitaldi guztien berri izateko agenda bateratua sortu dute

Udalaren web orriko azalean aurkituko duzu egutegia

Herrian antolatzen diren ekimenen berri jakin gura baduzu sar zaitetz udaleko webgurearen Agenda Bateratuan eta bertan jasoko duzu zuzenean informazioa: kultura, kirola, antzerkia, musika...

Udalaren web orriko azalean aurkituko duzu Elorrioko egutegia.

Informazioa eman gura baduzu honako helbidera bidali: agendaelorrio@gmail.com eta telefonoa: 946.032.032.

Sí te interesan las distintas actividades que se organizan en Elorrio no tienes mas que consultar la agenda Agenda Bateratua que la encontrarás en la página web del ayuntamiento. Para más información agendaelorrio@gmail.com o sino puedes llamar a Iturri Kultur Etxea 946.032.032.



Beharsarea: lana eskaini edo topatzeko leku aproposa

Lana eskaintzen duzula edo lana bilatzen duzula? Ba, sar zaitetz helbide honetan beharsarea.net eta aukeratu inte-

resatzen zaizun informazio guztia. Atari honen asmoa, lana euskaraz eskaintzea edota bilatzea da.



¿Ofreces o buscas trabajo? Entra en esta página web www.beharsarea.net y elige toda la información que te interesa. El objetivo de esta página web es ofrecer y buscar trabajo en euskera.

Segundo Lazkano euskaltzalea gogoan

Barriketan euskara elkarteko sortzaileetako eta eragile nagusienetakoa izan da



Azaroaren 18an, astelehenean, Segunen heriotzaren berriak ezustean eta lur jota utzi gintuen hurbiletik ezagutzen genuen guztiok. Benetan be, ez genuen horrelako berririk espero. Berrogeita hamalau urte zituen elorriarrak, bere familiaz gain, hainbat euskaltzale utzi gaitu umezurtz.

Irakaslea ogibidez, argazkilaria afizioz eta, euskalduna eta euskaltzalea izatez; laburrean, horrela definituko genuke Segun. Horregatik bada, Geurien aldizkari honetatik, lerro hauen bitartez, egindako lanaren errekonozimendua aitortu gura izan diogu euskararen alde hainbat lan egindako Segun adiskideari.

Barriketan Euskara Elkarrearen sortzaileetako eta eragile nagusietako bat izan da Segun. Ikusita herrian euskarak zelako gabeziak zituen, horiei erantzuteko sortu zuten Barriketan 1995ean. Elorrioren euskaraz naturaltasunez eta

normaltasun osoz bititzea izan zen elkarteak jarritako helburu nagusia; hamazortzi urte pasatu direnean eta oraindik bide luzea geratzen den arren, euskararen osasunak hobera egin du Elorrioren batzuen lan isilari eta militantziari esker, horietako bat zen gure Segun. Eraz aldizkariaren sortzaileetako bat ere izan zen eta Anboto aldizkarirako ere argazkilaria lanak egin ditu hainbat urtetan zehar.

“Geurien” sarea osatzen dugun elkarte, merkatari, ostalari eta zerbitzu enpresetako kideon partetik gure doluminak familiari zein Elorrioko Argazki Taldeari, eta hitza ematen dizugu zuk euskararenganako hartutako konpromisoa gure egingo dugula eta zuk hasitako lanari tinko jarraituko diogula, harik eta Elorri herri euskaldun bihurtu arte, hori izango baita gure omenaldirik zintzoena.

Eskerrik asko Segun.

gaur ere
euskararen
eguna!

